

BBVA FUNDAZIOA: IKERTALDEENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDIA (2017)

Lehentasunezko ikerketa arloak:

Humanitate Digitalak

Proiektuen iraupena:

Proiektuek 2 urteko iraupena izango dute. Proiektuekin, oro har, 2017ko azaroaren 30 baino lehen hasi beharko da.

Finantzaketa:

5 laguntza, gehienez, 75.000 euro gordinetako bakoitzak.

Ikertzaile nagusiak bete beharreko baldintzak:

- Espainiar nazionalitatea edo bizileku iraunkorra edo iraupen luzekoa Espainian izatea.
- Doktore titulua izatea.
- UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztu duen une beretik eta proiektua gauzatu bitartean.
- Eskaera bakarra egin dezakete deialdi honetan eta ezin dira izan BBVA Fundazioaren, urte berean, Ikertzaileentzat eta Sortzaile kultural Leonardo bekaren eskatzaileak, ezta fundazio horren indarreko laguntzarik (ikertaldekoak edo banakakoak) eduki ere.

Ikertaldeko kideek bete beharreko baldintzak:

- UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztean.
- Eskaera aurkezten denean, lotura izatea edozein herrialdetako irabazi asmorik gabeko eta ikerketara emanak diren beste unibertsitate edo ikastegi publiko edo pribatu batzuekin. **Pertsona horiek UPV/EHUa aurkeztu beharko dute haien jatorrizko erakundeak emandako idatzizko baimena.**
- Beste proiektu batzuen karguko obra edo kontratu zerbitzua duten ikertzaile kontratatuek **EZIN** dute parte hartu deialdi honetan.
- Eskaera bakarra egin dezakete deialdi honetan eta ezin dira izan BBVA Fundazioaren "Leonardo" bekaren eskatzaileak, ezta fundazio horren indarreko laguntzarik eduki ere.

GARRANTZITSUA: Ikertaldeko kideek, baldin eta laguntza gauzatu bitartean UPV/EHUrekin duten lotura amaitzen bazaie, **ezin** izango dute gasturik egotzi aipatutako egoeran dauden bitartean. Ikertzaile nagusiak eman beharko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari proiektua gauzatu bitartean gertatzen diren bajen berri.

Aurkeztu beharreko dokumentuak:

- Ikertzaile nagusiaren NANaren edo pasaportearen kopia.
- Ikertzaile nagusiaren bizileku ziurtagiria, bizileku iraunkorreko txartela edo atzeritarren nortasun agiria, betiere indarrean direlarik.

- c. Proiektuaren zientzi memoria formatu librean.
- d. Taldekide guztien CVa.
- e. Aurrekontua.
- f. Parte hartzaileen zerrenda. **Agiri honek UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeak sinatuta egon behar du.**

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:

Behekoak joko dira gastu hautagarritzat:

- a. Langileen kontratazioa (Doktorego aurreko eta doktore ondoko kontratuak)
- b. Material inbentariagarria
- c. Material suntsikorra
- d. Bidaiak eta egonaldiak
- e. Bestelakoak

UPV/EHUko ikertzaile nagusiak aurkeztutako eskaerek zehar kostuen %5a jaso beharko dute aurrekontuan.

GARRANTZITSUA: 2008ko apirilaren 29ko Erabakian –horren bidez agintzen da UPV/EHUko Estatutuen 315. artikulua garapen arautegia argitaratzeko– jasotakoa aplikatuz, irakasle-ikertzaileek **ezin izango dute nominan ordainsaririk jaso deialdi honen bitartez.**

Eskaerak aurkezteko azken eguna:

2017ko uztailaren 27ko 19:00ak arte

Eskaerak UPV/EHUn aurkezteko prozedura:

EPEMUGA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
2017ko ekainaren 26a	Ikertzaile nagusia	Bidali "I. eranskina" proposatutako ikertaldeak berrikusteko: convocatorias.dgi@ehu.eus ,
2017ko uztailaren 3a	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	Taldeak egindako berrikuspenaren emaitza jakinarazi.
2017ko uztailaren 10a Data horretatik aurrera ez da bermatuko ordezkaririk legalaren abala behar duen dokumentazioa epe barruan bueltatuko denik.	Ikertzaile nagusia	Bidali aurrekontua eta "Ikerketan parte hartu dutenen zerrenda" agiria (convocatorias.dgi@ehu.eus) <u>sinadura guztiekin</u> . Fase honetan ez da zientzi memoria bidali behar.
2017ko uztailaren 26a	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	Bidali "Ikerketan parte hartu dutenen zerrenda" agiria Ikerketaren arloko errektoreordeak sinatuta.
2017ko uztailaren 27ko 19:00ak arte	Ikertzaile nagusia	Eskaera dagokion epean eta moduan BBVA Fundazioaren aplikazioan aurkeztu eta eskaera osoa convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali artxibatzeke.

UPV/EHUren datuak eskaera orria betetzeko:

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- Ordezkarri legala: José Luis Martín González
- Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea
- IFK: Q-48/18001-B
- Helbide soziala: Sarriena auzoa z/g
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa
- Harremanetarako helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus

UPV/EHUrekiko harremana:

- Telefonoa: 94 601 80 08
- E-maila: convocatorias.dgi@ehu.eus

BBVA Fundazioarekiko harremana:

- E-maila: ayudas-investigacion@bbva.es

Informazio gehiago:

<http://www.fbbva.es/TLFU/tlfu/esp/noticias/fichanoticia/index.jsp?codigo=1917>